



Ohiko Batzar Nagusia



Uztailak 19

Donostia/San Sebastián

Arriola pasealekua 26, Ibaeta auzoa (Pakea Klinika)



Izen-ematea: 944 252 503
cgutierrez@mutualia.eus

MUTUALIA" - Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko Mutuaren (Mutualia) Zuzendaritza Batzordeak, martxoaren 26an egindako bileran, erabaki zuen, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. artikuluan eta bere Estatutuen 22. eta 23. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, enpresaburu elkartuei Ohiko Batzar Nagusirako deia egitea. Batzarra uztailaren 19an egingo da, 12:00etan (lehen deialdian) eta 12:30ean (bigarren deialdian), Donostiako Arriola pasealekuko 26. zenbakian, Ibaeta auzoan (Pakea Klinika), eta gai-zerrenda hau izango du:

Gai-zerrenda:

1. Presidentearen agurra.
2. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa-txostena, zuzkidurak eta ondare historikoaren aplikazioak, memoria, balantzeak eta emaitza-kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiak igorritako auditoretza-txostenak nahiz 2018ko ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa eta soberakinen aplikazioa ezagutu ondoren.
3. 2020ko ekitaldirako aurrekontu-aurreproiektuaren berri ematea eta, hala badagokio, onartzea, eta Zuzendaritza Batzordeari ahalmenak eskuordetzea, Gizarte Segurantzaren aurrekontu-proiektuan sartzeko beharrezkoak diren aldaketak egin ditzan.
4. Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatzea eta berritzea.
5. Prestazio Berezien Batzordearen kudeaketaren berri ematea.
6. Bileraren akta berresteko eta onartzeko bi kontu-hartzaile izendatzea.
7. Presidentearen esku-hartzea.
8. Galde-eskeak.

Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiak igorritako memoria, balantzeak, emaitza-kontuak eta auditoretza-txostenak mutualitatearen webgunean (www.mutualia.eus) kontsultatu ahaliko dira, Batzar Nagusia egin aurreko 15 egunetan, Mutualiari dagoeneko jakinarazi badizkiote eta, edonola ere, jakinarazten dizkioten egunetik aurrera.

Legitimazioa egiaztatzeko modu eta baldintza aplikagarriak:

Berlaratzeko eskubidea izango dute Batzar Nagusiaren egunean elkartzeko hitzarmena indarrean duten Mutualiaren enpresaburu elkartu guztiak; hala ere, betebeharrak sozialak egunean dituztenek bakarrik izango dute bozkatzeko eskubidea.

Berlaratzeko eta bozkatzeko eskubideak gauzatzeko, jakinarazten da Mutualiaren egoitza sozialean eta egoitza operatiboan Batzar Nagusiaren egunean eguneratutako kontrol-erregistroa egongo dela, betebeharrak sozialak egunean dituzten enpresaburu elkartuak eta haien buruzko datuak bilduko dituen. Era berean, egunean bertan betebeharrak horiek egiaztatzen ahaliko dira elkartze-agiria eta GSDoren ziurtagiria erakutsiz.

Batzar Nagusira bertaratu nahi duten mutualitateko enpresaburu elkartu guztiak, beren kabuz edo eskuordetza bidez, «Berlaratzeko txartela/Ordezkaritza bidezko botoa» izan behar dute, eta hori Mutualiaren aipatutako zentroetan jaso ahaliko da, edo gure webgunean lortu (www.mutualia.eus). Ordezkaritza bidezko botoa beste enpresaburu elkartu batek baino ezingo du gauzatu.

Bilbon, 2019ko martxoaren 26an
Zuzendaritza Batzordea
PRESIDENTEA